

Udan musikaz gozatzeko

Udaleku
musikalak
Udal Musika
Eskolan ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-05-26 ▶ IV. urtea ▶ 895. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

40 urte bete ditu Villabona- Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolak

SORRERA ▶ 1965an
sortu zuten, Zizurkilen,
11 ikaslerekin; egun 500
ditu, hiru eraikinetan

OSPAKIZUNAK ▶ Gaur
hasi eta ekinaren 3ra arte
hainbat ekitaldi antolatu
dituzte urtemugarako ▶ 4



Juan Isasti eta Kontxi Ormazabal, lehengo eta egungo zuzendariak. I. GARCIA

TOLOSA ▶

«Udalaren aurreproiektua herritarron lanaren ondorio da»

Gerontologikoaren aldeko plataformak «harrotasuna eta
poza» agertu eta manifestaziorako deia berretsi du ▶ 2



Zuzendaritzak Araxes paper-fabrika itxi du

TXARAMA ▶ Ordainketa-etendura da
itxieraren arrazoia; langileek agerraldia
egin zuten atzo enpresa ez ixtea exijituz ▶ 6

ALEGIA ▶

Mailaz igotzea dute helburu Intxurrekoek ▶ 5

ceinpro

**Diseinuan eta kreazioahalmenean
oinarritutako heziketa**

■ **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ **ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Hariz Pasalekua, 95
20008 Donostia
Gipuzkoa
Tel: 843 310 879
Fax: 843 310 875
www.ceinpro.es

GERONTOLOGIKOA ▶

NOELIA LATABURU

Tolosako Udalak aurkeztu berri duen Gerontologiko berriaren aurreproiektuaren harira Gerontologikoaren aldeko plataformak «poza eta harrotasuna» agertu zuen, atzo eginiko prentsaurrekoan. Poza, «aurreproiektu hori egindako lanaren errekonozimendua» delako, eta harrotasuna «ez harrokeria, plataformak emandako arrazoiak benetakoak, arrazoizkoak eta pisuzkoak direla agertzen baitu».

Aitzitik, harridura ere azaldu du plataformak; izan ere, «informazio hau ezkutatu egin zailgu». Itxierak sortutako arazoari konponbidea emateko mahain alderdi politikoekin «eskuz» aritu direla-eta «tamalgarriztat» jo dute kideek udal ordezkarien «jarrera alderdikoaia». Aurreproiektuaren aurkezpena «herritarrek liluratzeara» lortu nahi duen joko politikoa izatea jarri du ez-baian plataformak, «beraiek itxi» zutela gogora ekarriz. Hala eta guztiz ere, «ezkutueriak ezkutueria» plataformak elkarren artean adostutako konponbidearen alde egingo duela ziurtatu du.

Aurreproiektua aurkezteko «Udalak aukeratu duen egunaren gainean» ere jardun dute; izan ere, plataformak deitutako manifestazioa baino 3 egun lehenago izan zen. «Oso larria litzateke aurkezpen honen helburu bakarra Gerontologikoaren aldeko herritarren nahia isilaraztea izatea, jakin badakigu ez dutela gustuko gizartearen Gerontologiko berriaren aldeko deiadarra». Bide batez, Udalari jendaurrean hartutako

«Udalaren aurreproiektua herritarren lanen ondorio da»

Biharko manifestaziorako deia berretsi du plataformak, 12:00etan, Trianguloan

konpromisoa betetzeko eskaera luzatu diote plataformakoek, eta «argi» dute «zentro berri bat egingo bada, mobilizaziora, presioari eta herritarrok eginko lanari esker» izan dela.

«Galdera mordoska burura»

Aurreproiektuak «galdera mordoska» dakarzikela adierazi dute, «arduradun politikoek erantzun beharrekoak». Besteak beste, Euskal Herria plazako zentroaren itxiera jarzten dute zalantzan, «gero beste bat egin behar izatekotan». Halaber, inbertsio berria nola bideratuko duten galdetzen diote buruari; izan ere, «orain arte, itxieraren arrazoia garestia zela zen». Eta, azkenik, «noiz arte itxaron beharko dute zain dauden bezeroek?», itaundu nahi diote Udalari; hau da, ea noiz eraikiko duten Gerontologiko berria.

Azaldutako guztia dela eta, «eta beti ere konponbide duin, egoki eta bidezko baten alde lanean jarraitzeko prest izaki», bihar, 12:00etan, Triangulotik abiatuko den manifestaziorako deia berretsi du plataformak eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatu dituzte, «Gerontologiko publiko erdiguneko kokatua eta kalitatezko baten alde».



Gerontologikoaren aldeko plataformako kideak, atzo eginiko prentsaurrekoan. NOELIA LATABURU

Alderdi ezberdinen erreakzioak

Alderdi politiko eta sozial ezberdinek euren jarrera azaltzen darraite, Gerontologikoaren inguruko gaiari dagokionez. Hala, LAB sindikatuak, Ibarako Uta Plataformak eta Aralarrek ere euren iritzia azaldu nahi izan dute.

Sindikatuak Gerontologikoaren aldeko plataformak biharko egin duen manifestaziora deialdiarekin bat egin du. Halaber, Gerontologikoaren itxiera «Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren artean» egin izana salatu du LABek. Haatik, «hipokresia politiko

honen guztiaurrean» herritar plataformak eginiko lana eskertu nahi izan du langile batzordeak, «txalotzekoa baita egin duen lana».

Ibarako Uta plataformak ere bat egin du deialdiarekin eta ibartar guztiak parte hartzera animatu ditu. Plataformak adinekoen egoeraren gaineko hausnarketa egin du, «politika honekin», etorkizuna nola izango den galdetuz.

Aralarrek, berriz, bere «poza» agertu nahi izan du, «Tolosak Gerontologiko berria izango duelako, Foru Al-

dundiak ezezkola eman arren». Alderdiak herri plataformari ere aipamena egin dio, «haien lana zorionduz». Aralarren esanetan, «herritarren presioaren garaipena izan da». Hala eta guztiz ere, «keza» ere azaldu nahi izan dute zentroaren finantziarioa dela eta. Izan ere, «Foru Aldundiari dagokio eskaini beharreko zerbizua erakutsitako joko bikainari eutsiz eta lortutako emaitza bikainak aintzat hartuz etxeko azken neurrak borobildu nahi dute neskek, zaleen aurrean. Adierazi dutenez, «zaleek merezi dutelako, eta gozatu dutelako».

GIZARTEA ▶

Erakusleho ikastaroa antolatu du Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak

Ekainaren 5etik 16ra garatuko da, egunero, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Tolosa 750 Fundazioak Gipuzkoako, Merkatarien Elkartearen laguntzarekin, Tolosako

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Vito CDI 110. 2002. urtekoa. Kanpinerako prestatua. Interesatuek deitu 685 72 50 53 zenbakira.

merkatari zuzendutako erakusleho ikastaroa antolatu du. Ikastaro honen helburua urteurrenaren «egun handia» iristen denerako herriko erakuslehoak apaintzen laguntzea da.

Herriko merkatari, hain zuzen ere, ekimen honen berri gutun baten bitartez eman zitzaizten. Juan Luis Anula Machinnek gidatutako duen ikastaro hau langile aktiboei zuzendua dago, eta ekainaren 5etik 16ra bitartean izango da, astelehe-

netik ostiralera, 14:15etik 16:15era, Tolosako Kultur Etxean. Plazak mugatuak dira eta izan-emateak 943 67 03 83 telefonoan egin daitezke. Ikastaroaren edukia ere zehaztu dute dagoeneko. Guztira, lau zatitan banatu dute: lehenenik, merkatal interiorismorako sarrera; bigarrenik, salmenta puntuaren animazioa izango dute hizpide; ondoren, oinarriko eza-gutzak landuko dituzte; eta, azkenik, 750. urteurrenaren bideratutako aplikazio praktikoa.

ARETO FUTBOLA ▶

Hegoalderen azkenekoa, Ibarako Belabietan

Denboraldia garaipen batekin agurtu nahi du taldeak, Mainfer Zaragozaren aurka

ERREDAKZIOA

Hegoalde denboraldiko azken neurrak jokatu du etxean datorren larunbatean. Etxean bai, baina Tolosako Usabal kiroldegian ez, Ibarako Belabieta kiroldegian baizik. «Sekulako garrantzia» duen partidua izango da; izan ere, Mainfer Zaragoza, 42 punturekin, sailkapenean postu bat aurretik du Hegoalde, eta garaituz gero seigarren jarri-

ko litzateke talde tolosarra; baldin eta Kettal Fuenlabradak ere galten badu, haiekin bosgarren postuan berdinduko dute, gainera.

Bigarren itzuli guztian zehar erakutsitako joko bikainari eutsiz eta lortutako emaitza bikainak aintzat hartuz etxeko azken neurrak borobildu nahi dute neskek, zaleen aurrean. Adierazi dutenez, «zaleek merezi dutelako, eta gozatu dutelako».

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

HITZA, kafea bezala, ordaindu beharra

Tolosaldean Egunero zena kontuan hartzen badugu, badira ia 5 urte egunero eskualdeko euskarazko egunkaria jasotzen dugula. Eskatzen duenak jasotzen du, izena eman beha-

rra dagoelako. Nik neuk segituan eman nuen eta orain ere jasotzen dut **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**. Nahi dudalako, hori garbi.

Eta urtero ordaintzen dut ematen didan zerbitzua. Eskualdeko informazioa etxeraino ekartzen dit. Gustura nago.

Tabernara joaten naizenean, nik neuk nahi dudalako joaten naiz, eta kafea eskatzen badut, kafea nahi dudalako da, eta

kafe hori ordaindu egiten dut. Gauza bera pasatzen da beste hainbat gauzarekin: edariren bat, kapritxoren bat, erosketak, arropa...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria, baina, ordaindu ez dutenek ere jaso izan dute egunero etxean bertan. Horiek ere nahi dute egunkaria jasotzea, eskatu egin dutelako, eta **HITZAK** egunkaria eraman egin die. Irakurle horiek

beraiek kafea ordaindu egiten dute tabernan, garagardoa ere bai, arropengatik ordaindu egiten dute... baina euskarazko egunkariagatik ez. Ez dakit zergatik ez duten ordaintzen nahi duten zerbait. Nolabait, gutxietsi egiten dute irakurle ez-ordaintzaileek **HITZA**.

HITZAK, ordea, aldatu egin du irizpidea, eta hemendik aurrera kuota ordaintzen dutenek baino ez dute jasoko egunka-

ria etxean. Irizpide ona iruditzen zait, euskarazko prentsa honi balioa ematen diolako.

Pentsatzen dut oraindik ordaindu ez dutenek kontuan hartuko dutela **HITZAK** ere kostua duela, eta kafea ordaintzen duten bezala, **HITZA** ere ordainduko dutela.

Gainera, 50 euro besterik ez dira urtean!

INAKI JAUREGI ▶ TOLOSA
MUSIKA ▶

Sentsibilitate artistikoa garatzeko aukera udan

Udaleku musikalak egingo ditu Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak; honekin lotuta, Xabier Lizaso musikariak gurasoentzako kontzertu bat eskainiko du bihar



Xabier Lizaso musikaria eta Amaia Lizaso Musika Eskolako zuzendaria, atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

«Bi aste jolasean, musikaren mundu zoragarria ezagutu, ulertu eta bizitzeko». Hori da proposatzen duena Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak udaleku musikalekin. Atzo, Amaia Lizaso Musika Eskolako zuzendariak eta Xabier Lizaso musikariak aurkeztu zuten «haurren musikarekiko zaletasuna piztu, bultzatu eta garatzeko egitarau ludikoa».

Honekin batera, Musikaria 2006ko ekitaldien barne, bihar, 11:00etan, Musika Eskolako areto nagusian, Xabier Lizasok piano kontzertu pedagogikoa eskainiko du; baina oso berezia izango da, haurrei zuzendua izan beharrean, gurasoei zuzendua izango baita. Chopin Studioek lau urte da-

UDALEKU MUSIKALAK ▶

Lekua. Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskola.

Iraupena. Bi aste, astelehenetik ostiralera.

Adina. Haur tailerrean 4 eta 5 urte bitartekoak ariko dira. Bestetik, 6 eta 11 urte bitartekoak.

Data. Lehenengo txanda uztailearen 3tik 14ra.

Ordutegia. Astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:30era.

Izena emateko epea. Ekainaren 17ra arte.

Prezioa. 105 euro.

ramatzate gisa honetako udalekuak antolatzen, dagoeneko, Gazteiz, Zarautz, Donostia, Cas-

tro-urdiales, Cartagena, Bilbo eta Barañainen egin dituzte, eta gero eta arrakasta handiagoa lortu dute. Orain dela bost urte-edo hasi zirenean, musikariak komentatu zuenez, beldur ziren haurrak aspertuko ote ziren, «baina aurkeztutako egitarauak ez du horretarako astirik uzten». Gasteizen hasieratik animatu zen jendea udalekuetan izena ematera, baina gainontzekoetan gehiago kostatu zaie. Hala ere, Xabier Lizasok azaldu zuenez, «lehenengo urtean parte hartu zutenek hurrengoetan ere jarraitu dute».

Jardunaldi hauen helburua musika klasikoaren bidez ikaslearen sentsibilitate artistikoa garatzea da. Era berean, gazte txoek beraien musikarenganako jakinmina oporretan garatu ahal izatea ere du nahia, tailer

bat sortuz. Antolatzaileen esanetan, «azken xedea ez da teorikoa, baizik eta musikarekin gozatzen, barre egiten eta sentsibilitatea lantzen hastea. Haurrek musika egitarau oso eta bateratu batean parte hartzea». Horregatik, batez ere, musikaren munduan esperientziarik ez dutenei dago zuzenduta ekimena.

Udaleku musikalki hauetako ikastaroak musikari profesionalek, dantza eta kantuan adituak diren maisuek, soinketan lizentziatuek eta Musika Kontserbatorio Goreneko kolaboratzaileek emango dituzte. Ikasleak talde ezberdinetan banatuko dira, eta ekitaldi guztietan txandakatzeko joango dira hamabostaldian zehar.

Goizero ordubete inguruko lau saio gauzatuko dituzte: hauetako biretan alde didaktikoa landuko zute, eta gainontzekoetan jolasak eta dibertimendua gehiago landuko dituzte. Hasteko, musika kontzertu didaktiko bat izango dute, ondoren, soinketa eta jokoak. Honen ostean atsedenditxo bat egingo dute, eta jarraian dantza eta koreografia ezberdinak ikasiko dituzte. Azkenik, kantua eta entsegu korala landuko dute. Ikastaro hauekin «mundu berri bateko atea zabalduta nahi» dizkiete gazteei; horregatik, maila guztietako haurrentzat irekiak dira udalekuak.

Amaieran, familia guztiei irekita, *Klasika familian* izeneko jaialdia egingo dute. Gazte txoek kurtsoan ikasitako koreografiak eta kantuek erakutsi ahal izango dizkiete gurasoei.

POLITIKA ▶


Joxe Bernardo Badiola. HITZA

Txirritaren hilketaren urtemugan, omenaldia etzi

E. EZEIZA

Egun hauetan bete dira 30 urte Joxe Bernardo Bidaola *Txirrita*, Lizartzan jaioa, iparralderako muga zeharkatzen saiatzen ari zen bitartean Guardia Zibilak tirokatu eta erahil zuela. Hori dela eta, igande honetan, hilak 28, omenaldi bat egingo dio, urtero ohi izaten den bezala, Tolosako Askatasunak.

Aurtengoan, iazkoetan bezala, lore eskaintzarekin hasiko dira 10:30etan, Uzturre mendian, bere monolitoaren aurrean; eta ondoren, 11:30ean, jarraituko du omenaldiak. Izaskunen ekitaldi politikoarekin. Askatasunako ki-deen ustetan, «itxaropeneko garaiak diren hauetan, Txirritari eta bera bezalako burkide askori esker iritsi gara honaino; horregatik, omenaldi honek garrantzi handiagoa du gaur egun».

Bide batez, aprobetxatu nahi dute ekitaldi hau «urteak joan eta urteak etorri, 30 urte hauetan Joxe Bernardo Bidaolaren irudia eta omena egitea posibilitatu duten guztiak omentzeko». Eta, batez ere, gaur egun, adinean aurrera joan eta Uzturrera igotzea ezinezkoa zaien guztiak.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

40 urteko historia

Jesusen Bihotza Ikastola 11 ikaslerekin hasi zen; egun 500 ditu hiru eraikinetan

IMANOL GARCIA

Jesusen Bihotza Ikastolak orain 40 urte egin zituen lehen urratsak. Gaurtik hasita hainbat ekitaldi burutuko dituzte urteurrena ospatzeko. Lehen ekitaldia Juan Isasti zuzendari ohiari eta hasierako gurasoei eta irakasleei eskainiko diete.

Ikastolaren hastapenak Zizurkilera izan ziren, 1965. urtean. Villabonako eta Zizurkilgo guraso batzuk bultzatuta, 11 haur ikasketak hartzen hasi ziren egun botika dagoen lekuan. Gero Arantzazuko Ama parrokiko lokal batean jarraitu zuten.

Denbora aurrera zihoalarik, haurren eta irakasleen kopurua igotzen joan zen. 1971-72. ikasturtea erabakigarria izan zen Villabonako Hezkuntza pribatuari zegokionez, Villar Palasiren OHoko lege berria zela eta. Une honetan hiru ikastetxe pribatu ziren: Ikastola, gurasoek kudeatua; San Jose ikastetxea, Gurutzeko lekaimenek zuzendua; eta Jesusen Bihotza Ikastetxea, Villabonako Parrokiarena, Batxilergorako baimendua eta errekoizitua zegoena. «Legeari aurre egiteko hiru ikastetxeak elkartu eta ikastetxe bakarra sortu behar izan genuen», dio Isastik.

Jesusen Bihotza Ikastetxea bezala hasi zena Ikastola bihurtu zen 1973-74 ikasturtean, lehenengo diru laguntza jaso ondoren. Zentroko eraikinaz gain gero etorri ziren Txermingoa eraikitzearena eta Zizurkilgo eskola publiko zahararen eraikina aprobetxatzeko aukera. «Oroitzapen



Ikastolaren historiako zati bat: 1969 urteko argazkia. HITZA

EKITALDIAK ▶

Ekitaldiez gain 40 urtean argazki erakusketa Villabonako Gurea erakusketa aretoan, gaur hasi eta ekainaren 2a arte. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan eta igandetan, 11:30etik 13:30era.

GAUR

18:30. Gurea erakusketa aretoan, omenaldia hasierako gurasoei, irakasleei eta Juan Isastiri.

20:30. Afaria Adunako Aburuza sagardotegian, Astiazaran anaiek eta Juan Mari Beltranek girotuta.

BIHAR

22:00. Iker Goenaga trikitalari eta ikasle ohiaren kontzertua, Olaederra kiroldegian.

HILAREN 29, ASTELEHENA

10:00. Gurea aretoan, Tolosako Hirukide ikasleen

emanaldia LH6 eta DBH1 mailakoei zuzendua eta gero LH3, LH4 eta LH5 mailakoentzat.

HILAREN 30, ASTEARTEA

17:30. Ikasleen eskutik *English Festival* Gurea aretoan.

EKAINAREN 2, OSTIRALA

15:45. Tolosako Hirukideko Txotx antzerki taldearen eskutik *Beteluko balnearioko mirakulua* antzezlanak Ikastolako DBHko 2., 3. eta 4. mailetak ikasleentzat.

19:30. Abesbatza emanaldia Gurea aretoan. Eresargi Ttipi abesbatza; Ikastolako ikasle ohi Nerea barriola sopranoa, Ana iparragirre piano-joleak lagundurik; Eresargi abesbatza.

EKAINAREN 3, LARUNBATA

Urteroko jaialdia Txermingoa eraikinetan.

onak gehiago ditut txarrak baino», azaltzen du Isastik, eta ondoren Buesa Hezkuntzako sailburu zeneko estuasunak gogoratzen ditu, edo hasierako irakasleek egindako esfortzua tituluak lortzeko, edo lehenengo garaietan izandako larritasun ekonomikoak.

Eguno erronkak

Egun 500 ikasle daude Jesusen Bihotza Ikastolako hiru eraikinetan, 2 urtetik 16 urte bitartean. Kontxi Ormazabal da egungo zuzendaria. Orain lau urte hartu zion lekukotza Juan Isastiri. Ikastolaren erronka nagusienetakoa, Ormazabalek dioenez, «EFQM kalitatezko kudeaketa sistema ezartzean datza. Zortzi pertsonako talde bat ari gara horretan lanean, eta pixkanaka Ikastola guztira zabalduko da».

Beste proiektu batzuk ere nabarmentzen ditu Ormazabalek: «Esaterako, eleantzasun proiektua dugu Ikastolen Federazioetik bultzatuta. Ahoskotasuna ere bereziki lantzen ari gara, idazkera eta irakurketa-rekin batera. Irakasleak ere etengabe formatzen ari dira. Bestalde, eraikinak berritzen ere ari gara».

Zuzendari ohiak eta egungo zuzendariak bat egiten dute bere postuak «dan asko eta ardua handiak eskatzen dituela» esaterakoan, baina «ilusioak, gogoak eta jendearen babesak indarrak ematen ditu aurrera jarraitzeko». Ondoren egunetan Ikastola guztia eta bertatik igaro direnak ospakizunetan murgilduko dira.

KIROLA ▶

Pilota partidak Intxurren eta Errebote plazan

Tolosaldeko III. Pilota Topaketaren final-laurdenak jokatuko dira bihar Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan. Eskuz banaka lau t'erdian, afizionatuen mailan: 10:30ean, Martinez (Zazpi-Iturri) eta Beloki (Zazpi-Iturri); 11:15ean, Lizaso (Behar-Zana) eta Galarraga (Aurrera Saiatz). Bestalde, Euskal Herriko Errebote Txapelketako partida jokatuko du Behar-Zanak, etzi, 11:00etan, Errebote Plazan Zaharrer Segiren (Baigorri) aurka.

HEZKUNTZA ▶

Euskal Herriak bere eskola izateko deialdia

Euskal Herriak Bere Eskola kanpainarako Tolosaldean ere sinadura biltzea egin dute. Kanpaina bihar bukatuko da, Donostiako Boulevardetik 17:30ean aterako den manifestazioarekin.

HERNIALDE ▶

Korri, Xalto eta Brinko pailazoak gaur, liburutegian

Galtzaundik Korri, Xalto eta Brinko pailazoan ikuskizuna antolatuta du gaur, 17:30ean, Hernialdeko liburutegian.

ZIZURKIL ▶

Sukaldaritza hotza ikastaroa Urkamendin

Sukaldaritza hotza ikastaroa egingo dute hiru egunetan (ekainaren 7an, 14an eta 28an), Urkamendin. Izenematea, 943 69 24 95 zenbakian. Gaur da azken eguna.

IKER GOENAGA
AMORRUA

Olaederra kiroldegian
Maiatzak 27an
22:00etan

Sarrerak salgai:
Jesusen Bihotza Ikastolatan, Shepherd's, Xiker eta Egarrin. Egunean bertan Olaederra kiroldegian

LIZARBI
Kutxa, mahai, zaldi eta...
Altxariak - Zurgintza ovelarra
Tolosaldeko ospakizun zaharrena berrikotuta
San Esteban ovela
Tel.Fax: 943 698 962 - TOLOSALDEA

Udaberriko sustapena
Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

8 geranioz osaturiko erretilua 14€

“Zatoz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga&Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.

ZULOAGA & GUREAK
zure konfidantza zko gardena

ALEGIA ▶ FUTBOLA

Onenen artean dago Intxurre

Infantilak finalean, eta Lurraldekoak 1. mailara igotzeko aukerak dituzte



Intxurre futbol taldeko infantil mailako jokalaririk irabazleak. HITZA

NEREA URBIZU

Intxurre infantil mailako futbol taldeek finalak jokatu zituzten asteburuan. Mutikoeak 4-2 irabazi zuten, eta neskek penaltietan galdu egin zuten. Triste, baina maila ona erakutsi zuten jokalaririk hauek.

Jubenil mailakoek bihar 15:30ean jokatuko dute Donostiako San Inazio taldearen kontra. Jarraian, Lurraldeko 2. mailan dauden Intxurre taldekoek Alegiako futbol zelaian jokatuko dute, 17:30ean. Azpeitiko Ikasberri taldearen aurka. Hurrengo astean Azpei-

tian jokatuko dute, eta emaitzen arabera, Lurraldeko 1. mailara igoko dira.

Bestalde, futbito txapelketa gaur hasiko da: bertan, 4. mailakoetatik hasita DBH 2. mailara bitartekoan artean ariko dira. 6 talde daude, eta haien artean nahasturik eratu dituzte taldeak, mailakatuagoak egoteko.

Gogoratu, bide batez, bihar afaria egingo dutela, II. Kirol Astearren barruan. 21:00etan herriko plazan egingo dute, baikoitzak berea eramanaz, eta sagardoa Intxurre taldekoen aldetik jarrita.

AMEZKETA ▶

Gaur Euskara Elkarteak bilera egingo du

Gaur, 18:30ean, Amezketa balio anitzeko gelan Euskara Elkarteak bilera antolatu du. Nahi duen guztia dago gonbidatuta deialdi honetara, ekainaren bukaera aldera egingo duten ekintzaren bat zehazteko eta hura antolatzeko.

ALEGIA ▶

KZguneko tutorearen bisita izango da gaur

KZguneko tutorearen bisita izango da gaur, 16:00etatik 19:00etara. Bertan *Enplegu bat lortu* mintegia jorratuko du, 17:00etatik 19:00etara. Tutorearen hurrengo bisita ekainean izango da.

ALEGIA ▶

Festetarako, txistulariei deialdia

Alegiako jaien ospakizuna dela eta, Jai Batzordeak herriko txistularien kalejira antolatu nahi du, Karmen egunerako, hau da, uztailaren 16rako. Horretarako bilera bat dago gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Bertan, antolakuntza eta partituren banaketa egingo dira. Bileran herri txistulariak jotzen duten guztiak daude gonbidatuta.

ALBIZTUR ▶



Ostiraleko antzerkia. E. EZEIZA

Kultur Astean bertsolariekin ikastaroa izango da

Eskolako umeen antzerkia gaur izango da eskolan, bertsoen aurretik

N. URBIZU

Gaur, eskolako umeek antzerkia eskainiko dute, 19:00etan, eskolan bertan. Ondoren, 20:00etan, Aitor Mendiluze eta Amaia Agirrerekin bertso ikastaroa hasiko da Kultur Etxean, hurrengo bi ostiraletan ere izanik.

Nora doa ero hori antzerkia izan zen aurreko larunbatean, eta adin ezberdineko jendea elkartu zen, ikusleek «ikasteko aproposa izan zela» gehituz. Pozik, beraz, ikusleak.

GUTUN@K ▶

Arrazoi guztiekin AHT gelditu!

Jaurlaritzak zein Espainiako Gobernuak AHTren erakuntza lanak abian jartzeko erabaki larria hartu dute. Gogor salatzen dugu AHTren auzian gizaratean sortu den eztabaidari eta herri mugimenduak bultzatu dituen mobilizazioei bizkar emanda, indar-frogaren hautua egin dutela.

Egite kontsumatuen politika ezarri nahi dute berriz ere, herriarrei beste gizarate eta garraraio eredu orekatu eta iraunkor baten oinarriak eztabaidatu eta erabakitzeke aukerarik utzi gabe. Herriaren izenean jarduten dutela diote, baina gehiengo soziala eta sindikala AHTren aurka agertu da. Hone-

la, AHT Gelditu! Elkarlanak proiektua geldiarazteko borrokan indarrak bateratzearen alde egiten du; hots, alternatiben auzian aniztasuna onartzen du, baina lehenengo, AHT gelditu; herritarrei erabakietan parte hartzeko ahalmena itzuli, eta egungo garraio eta gizarate ereduari dagokionean, eztabaida eta eraldaketa bati ekin behar zaiola eskatzen du.

Gainera, gure ustez egoerak gogor jokatzeko eskatzen du. Obrak hastea onartezina da, eta inposizioari borrokaren eta mobilizazioaren bidez erantzuteko dei egiten dugu. Hurrengo hilabetei begira, AHTren aurkako mugimenduak erronka handia bezain garrantzitsua dauka, proiektu txikitzaile hori berandu baino lehen gelditzeke. Gauzak horrela, AHT Geldi-

tu! Elkarlanak aukeran dituen bide guztietatik jarraituko du proiektu anti-ekologiko eta anti-sozial hori gelditzeke lortu arte. Borroka zailagoa eginagatik ez dugu amore emango; eta obrak hasten badituzte, hori ez da inondik inora gatazka honen amaiera izango, AHTren aurkako oposizioa areagotu eta erradikalizatuko dituen akuilu bat baizik.

Jende asko jabetu da egitasmo erraldoi horrek ingurumenari, nekazaritzari edota gizarateari eragingo lizkiekeen kaltearen larritasunaz.

Horregatik, AHTri oposizioa erakusten dioten hainbat talde eta erakunderen arteko AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa deitu du ekainaren 10ean Donostian, Espainiako gobernuak zein Jaurlaritzak *Euskal*

Y-aren erakuntza lanak abian jartzeko hartu duten erabakia erantzuteko eta AHTren inposizioak jendartean eragiten duen desadostasun zabala adierazteko. Tolosaldean dauden gizarateko talde guztiei deialdi zabala egiten diogu, beraz, *Arrazoi guztiak ditugu: AHT gelditu!* lelopean egingo den manifestazio horretan parte hartzeko, 17:30ean, Anoetako estadiotik abiatuta.

Herri mobilizazio indartsua bultzatu behar dugu, atzera-bueltarik gabeko ondorioak ekar ditzakeen, proiektu hori geldiarazteko. Euskal Herriaren energia nahikorik badaudela erakutsiko dugu.

DAVID MIANGOLARRA ETA MIKEL MUGERZA, TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ELKARLANAREN IZENEAN ▶ TOLOSA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

badugu GILTZA,
badugu HITZA

Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAREN egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAREN egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

TXARAMA ▶ GIZARTEA

Araxes paper-fabrika ixtea erabaki dute

I. Terradillos ▶ Txaramako Araxes paper-fabrikako zuzendaritzak enpresa ixtea erabaki du ordainketa-etendura dela eta. Langileek azaldu dutenaren arabera, «zorrak pilatu dituzte, pasa den astean gasa eta argia moztu zizkiguten, eta aste honetan, astelehenean, lanera sartzea gindoazela enpresa itxita topatu genuen». Antza, orain urtebete, zuzendaritza berria ezartzearekin batera, hasi ziren arazo ekonomikoak Araxes paper-fabrikaren. Langileek enpresa ez ixtea exijituz agerraldia egin zuten atzo. I. T.



HERRI-KIROLAK ▶

Hurrengo lehiak, harri-jasotzen eta aizkoran

Rekondo eta Otaegi finalerdietan eta Arrospide Olasagastiren aurka; leitzarrek harriarekin, Landarbide eta Izeta II.a arerio

IÑIGO TERRADILLOS

Urrezko Aizkolarien Txapelketako eta Urrezko Harri-jasotzaileen Txapelketako lehia berriak izango dira asteburu honetan, eta eskualdeko hainbat kirolari izango dira tartean.

23 urtez azipikoen Urrezko Aizkolarien Txapelketan Rekondo leitzarra eta Otaegi zizurkildarra finalerdietan ariko dira bihar; lehenengoak Mugerza II.a izango du Arerio eta bigarrenak Atutxa II.a. Mugerza II.a eta Rekondoren arteko lehiari dagokionez, ez dago faborito argirik; Mugerza gogotsu dabilela nabari da, baina Rekondok edozer egiteko gai dela erakutsi duenez, edozer

gerta liteke. Otaegi eta Atutxa II.aren kasuan, zizurkildarrak Arratiarrari aurre egin ahal dio; dena den, Atutxa II.a indartsu dabil aurrean porrotik ikusi gabe, eta animoak ez ditu faltako, bere jaioterritik oso gertu, Igorren, izango baita lehia.

21:00etan ekingo diote aizkolari gazteek, eta ondoren Binakako Urrezko Harri-jasotzaileetan Perurena eta Saralegi leitzarrek Landarbideren eta Izeta II.aren aurka egin beharko dute. Kasu honetan ere nahikoa parekatua egon liteke lehia; izan ere, pasa den astean leitzarrek egindako lanaren ostean, argi geratu da indartsu daudela. Zalantzakoa Landar-

bideren lana izan daiteke, erdi lesionaturik baitabil, baina bere kideak izetak eman dezakeen maila altua ematen saiatuko da.

Bestalde, etzi, Urrezko Aizkolarien Nagusien Txapelketaren baitan, Maeztun, Angel Arrospide leaburuarra eta Jose Mari Olasagasti igeldoarraren arteko lehia ikusteko parada izango da. Arrospidek Mindegia eta Larretxea garaitu zituen ligaxkan, eta Olasagastik Txapartegi garaitu zuen eta Nazabalaren aurka galdu. Biak ere ederki moldatzen dira txapelketako baldintzetara. 12:30etik aurrera izango da kanporaketa, eta ETBk zuzenean eskainiko du saioa.

IBARRA ▶

Ingrid Buchwald ibartarraren lanak ikusgai

Ingrid Buchwald ibartarrak Benito Izagirre kultur etxean bere azken lanen erakusketa jarri du. Bi formato desberdinetan eginiko obrak ikusteko aukera dago: batetik, ohol gainean eginiko pintura mar-goak eta animazio digitala, bestetik. Gaur izango da erakusketa bisitatzeko azken eguna.

IBARRA ▶

Imersoko bidaietan izen-ematea

Imersoko bidaietan parte hartzeko eskaerak egiteko epea zabalik dago. Opor-egitasmoetan parte hartzeko eskaera egin nahi duenak inprimakiak udaletxean jaso ditzake, eta ekainaren 15a baino lehenago bidali behar dira helbide honetara: 10.140 Posta-kutxa, 28.080 Madril.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA



Gaztetxoak haur parke berrian jolasean. ESTI ZEIZA

Haur parkea estreinatuta dute gaztetxoek

Pasa den larunbatetik Belauntzako txikiak jolastoki berria dute; izan ere, egun horretan egin zuten haur parkearen inaugurazioa. Herriko hainbat gazte euren gurasoek lagunduta izan ziren ekitaldian, eta baita Edurne Arbelegi alkatea ere. Txirrista eta kulunka berriak probatzearekin batera, gazteek txokolatea dastatzeko aukera ere izan zuten.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Langostino elkarteak moto bira egingo du etzi

100 kilometrokoa izango da; Azpeitiko Trenaren museoa ere bisitatuko dute

I. TERRADILLOS

Urteko hirugarren moto bira antolatu du Ibarako Langostino elkarteak etzi. Ibaratik aterako da 100 kilometro inguruko bira, eta ondorengo puntuak zeharkatuko dituzte berriz ere bertara bueltatu aurretik: Tolosa, Amaro, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Gaurin, Astigarreta, Mandubia, Nuarbe, Urrestilla, Azpeitia,

Artzailuz, Urraki, Goiatz, Bidania, Benta Haundi, zezen-plaza, Zubi Berria eta Euskal Herria. Azpeitian geldialdia egingo dute gosaltzeko, eta Trenaren museoa bisitatzeko.

Bira honetan parte hartzeko 8 euro ordaindu beharko dira; prezio horretan, gosaria eta museoaren sarrera sartuko da. 636 40 31 70 (Ander) edota 670 41 79 15 (Moski) zenbakietan egin beharko da izen-ematea.

Andoain administrazio lanak egiten dituen enpresa batek telefono bidezko kobraketa kanpaina bat egiteko langile bat behar du

Eskatzen da:

- Telefono bidez eginiko lanetan (kobroak, salmenta, bezero arreta...) eskarmentua izatea.
- Erabilizaille mailako informatika ezagutza.
- Kontabilitate ezagutza izatea baloratuko da.
- Lehenbaitlehen lanean hasteko aukera izatea.

Eskaintzen da:

- Astelehenerdik ostiralera 6 orduko lanaldia, 15:00etatik 21:00etara.
- 2 hilabeteko lana, emandako errendimenduari arabera luzatu daitekeena.

Interesatuak 10:00etatik 13:00etara deitu 943 30 43 35 telefonora maiatzaren 30a baino lehen.

ZABALA
DESGUAZEA

Beotibar Industrigunea, 18
BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347



GIZARTEA ▶

Presoen eta senideen aurkako «erabateko eraso» salatuko dute

Azken ostiraletako elkarretaratzeak egingen ditu Etxerat-ek gaur Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri eta auzoetan ere

ERREDAKZIOA

Etxerat elkarteak adierazi duenez, «gure senide preso eta iheslari politikoen nahiz gure aurkako erasoek etenik gabe jarraitzen dute».

Horren ispilu, azken hilabete honetan «preso politiko baten senideek izandako auto-istripua, aurten hamargarrena, hainbat preso politikok kartzelatan jasan dituzten eraso eta zigorrak, eskubidez dagozkien

kaleratzeen ukazioak eta estradizioak» aitatu dituzte. Ezarritako kartzela politikaren eraginez, «Euskal Preso Politikoen Kolektibo osoa jasaten ari dena» gogora ekarri du hala, eta estatuek «salbuespeneko neurri horiekin guztiekin xantaia egiten» jarraitzen dutela esan: «Gatazka politikari benetako konponbidea aurkitu nahi dion herri hau baldintzatzen jarraitzen dute, aurrera egin ez dezan». Etxerat-en us-

tez, «herri hau da erantzuna eman behar duena, kalera irten eta preso politikoekin xantiarik egitea ez duela onartzen adieraztera».

Horrela, Euskal Herriko herri guztietan bezala, Tolosaldean eta Leitzaldean ere elkarretaratzeak deitu ditu, ohiko lekuetan. 19:30ean: Alegia, Amezketa, Anoeta, Ibarra eta Tolosan; 20:00etan: Aduna, Asteasu, Ikaztegieta, Leitza, Lizartza, Villabona eta Zizurkilen.

ARESO ▶ SOKATIRA

Azkoitian jokatuko dute 680ko bigarren saioa

Oraingoz Nuarbe sailkapen buru delarik, laugarren dago Aresoko sokatira taldea

ERREDAKZIOA

Bihar arratsaldean jokatuko dute, Azkoitian, Euskal Herriko Sokatira Txapelketan, 680 kilotako bigarren jardunaldia: 17:00etatik aurrera, bertakotren geltoki zahararen ondoko zelaietan.

Pisu horretan 6 talde ari dira lehiatzen: Aresorekin batera, Azpeitiko Nuarbe, Mutriku, Erandioko Goiherri eta Laukizko Gaztediko bi talde; alegia, Nafarroako talde bakarra, bi gipuzkoar eta hiru Bizkaiko, hurrenez hurren. Taldeek 14:00etarako jada, pisaketak egiteko hitzordua eginga dute eta soka tenkatzen hasi aurre-

ko prestakizunak egiteko erabiliko dute tartea.

Aurreneko jardunaldia batez ere taldeen egoeraren berri jakiteko baliatu bazuten, biharko honek sailkapenak finkatzen joateko bidea emanen diete tiratzaileei, hurrengo saioan, hiruetan lortutako puntuen baturak erabakiko baitu garailea. Hala, oraingoz, azpeitiarrak doaz lehendabiziko, 6 punturekin; 5 ditu Gaztedi Ak; 4 Gohierrik; 3 Aresok; 2 Mutriku; eta puntu 1 Gaztedi Bk.

Etxezarreta prestatzen duen Aresoko taldea, sokan dituen kide berriei bidea emanaz, lan txukuna egitera doa.

LEITZA ▶ XXVIII. KULTUR ASTEA

'18/98 auzia: injustizia lege' hitzaldia izanen da gaur, Aurrera elkarte

Arratsaldean, umeez zirkotailerra dute; aste bukaeran ere erakusketak irekita egonen dira

J. ASTIBIA

Gaur iluntzean, 20:30ean hasita, Aurreran hitzaldia emanen dute 18/98 + taldeko kide Xabier Peñalberrek eta Expe Iriartek, besteak beste. Madrilan, Espainiako Auzitegi Nazionala delako tribunal berezian Euskal Herriko hainbat gizar-teko, kulturako erakunde eta eragile politikoren aurka egiten ari diren auziaz lehen esku-ko informazioa emanen dute bertan.

Ordurako, ordea, 15:00etan, eskolaumeek zirkotailerra egingen dute Ertetan.

Bestalde, aste guztian, eskulanak eta laboreak egiten ari ziren jubilatuen eta Liñoputzuko eho-ziri lanak erakusgai daude udaletxeko batzar aretoan, 18:00etatik aurrera. Urteik urtera teknika berriak, puntu berriak ikasten ari dira, eta ongi hornitutako erakusleioa agertu dute aurtengo ere. Igandean, eguerdian irekiko dute erakusketa.



Eskulanak. Eho-ziri lanak, gurutze eta izar puntua, bainikak, bordatu teknika desberdinak, gantxiloa, patchwork-eko teknika, chenilla-oihalak... urtez urte ikasten ari diren labore desberdinak ikusgai. J. ASTIBIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 26a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jai Batzordeak herriko txistularien kalejira antolatu nahi du festetan, Karmen egunerako, uztailak 16. Horri buruz hitz egiteko bilera izango da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.

Hernialde. Korri eta Xalto pailazoaren emanaldia. 17:30ean, liburutegian. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Kultur Errotaren barruan.

Tolosa. Tolosa Bizirik-en ekitaldi politikoa, *Eskubide zibil eta politikoak denontzat, orain* lelopean. Txalaparta, dultzaineroak... izango dira. Antton Izagirrek eta Asier Imazek hitz egingo dute. 20:00etan, Plaza Zaharrean.

Tolosa. *Gerontologiko berria orain* lelopean, manifestazioa. Bihar, 12:00etan, Triangulotik abiatuta.

Tolosaldea. Galtzaundi Euskara Taldeak etzi Elorrioren izango den Ibilaldira joateko autobusa antolatu du. Izen-ematea, elkartean (Nafarroa etorbidea, 6. Tolosa).

ERAKUSKETAK

Ibarra. Ingrid Buchwald ibartarraren animazio digitalak eta margolanak. Etzi bitarte ikusgai, Kultur Etxean.

Tolosa. Iñaki Olazabalen eskulturak, Aranburu Jauregian. Bihar da azken eguna.

JAIK

Ibarra. San Inazio auzoko jaiak: 20:00etan, jaien hasiera ohiko txupinazoarekin;



Kubako haur eta gazteen marrazkiak ikusgai

TOLOSA ▶ Kubako haur eta gazteek egindako marrazkiak ikusteko aukera dago egunotan Kultur Etxean. Amigos de Cuba y P'alante taldeak bildu ditu horiek guztiak, eta hamahiru bat pane-

letan jarri ditu zintzilik, jendaurrean. Arratsalde- ro ikus daitezke artista txikien lan hauek, Kultur Etxeko areto nagusian. Etzi izango da horretarako azken eguna. L. MONTES

AGURRAK ▶



Ekiñe Altuna Solis (Lizartza). Espebeko ziega ilun eta hezenetik, ebeko sutondo goxo eta epeleraino tarre horretan, amabio ta bion arteko maitasun-horrorak adierazle gardenena zara, bihuri hori. Ekiñe, askatasunaren kimua! Zorionak zure lehen urtebetetze honetan eta muxu sorgindu hazit. Lortuko diria! Amabio eta aitabio.



ZORIONAK
 Ekiñe. Urte askoan, sorginbo! Maitze zaitzugu pilla pilla patata tortilla. Orendaingo familiaren partetik bokolateko mila muxu.



URTE ASKOAN
 Nerea Irazusta Aristi (Alegia). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza **TOLOSAN** Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza **LEITZAN** Udaltzeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

22:00etan, berbena DJ Manurekin.

KIROL ASTEA

Alegia. 18:00etan, Intxurre pilota eskolako partidak; ondoren, 7e pasa Pilota Txapelketako finalaren errebantxa.

KULTUR ASTEAK

Albiztur. 19:00etan, eskolako umeen antzerkia; 20:00etan, bertso ikastaroa Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre bertsolariekin, Kultur Etxean.

Leitza. 15:00etan, zirko tailerra eskola atarian, Sebastopoleko Titiriteroen eskutik; 20:30ean, 18/98 auzia: *injustizia lege* hitzaldia, Aurreran.

MUSIKA

Tolosa. Txinbarri abesbatza. 20:00etan, Musika Eskolan. Musikariaren baitan.

Tolosa. Izaera eta Potemkin taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia M. I. Elbarren 95. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepaso, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. *Zaharrak Berri*.
 22:00-23:00. *Arkako show*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Gure gomendioa

ekar
 ekar ezagutzen dugulako

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑA • TOLOSA